



2009KO AZAROAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko azaroaren 25ean, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkolia Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Angel Hernandez Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak esaten du 2010eko aurrekontua eta plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda hurrengo osoko bilkurarako utziko direla, alde batetik aztertzeke denbora gehiago izateko eta baita ere Lazkao Lantzeneko aurrekontua prestatu gabe dagoelako eta hau aurretik Administrazio Kontseiluak onartu behar duelako.

Bestalde, esaten du alkateak, gaur emakumeen aurka ematen den indarkeriaren aurkako eguna ospatzen dela eta horren inguruko aipamen berezia egin nahi duela osoko bilkura honetan.

I.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- ESTALI GABEKO IGERILEKUAK LANEN 5. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen 5. obra-egiaztagiria luzatu dute. Bosgarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BI MILA HIRUEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EURO eta BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMOTakoa (102.358,59 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntza lanen bosgarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.



III.- ESTALI GABEKO IGERILEKUAK LANEN LUZAPENA ETA GASTUA OINARRI LIZITAZIO- RAINO IRISTEA ESKATZEA.-

"Joxemiel Barandiaran Kiroldegian kanpoko igerilekuak" proiektuko lanen Obra Zuzendaritzak lanen luzapena eskatuz eskaria aurkeztu du udal honetan. Eskari honetan adierazten da lanen esleipenduna den Altuna Y Uria, S.A.k aurkeztu duen planing-a eta eguraldi txarraren ondorioz egiten dela eskaria. Eskatutako epearen handitzeak lanak 2009ko abenduaren 30ean bukatu beharrean 2010eko otsailaren 27an bukatuko direla.

Halaber aipatutako "Joxemiel Barandiaran Kiroldegian kanpoko igerilekuak" lanen Obra Zuzendaritzak lanen esleipen prezioarekiko igoeraren berri ematen dio udalari. Igoeraren zioa lurraren drenajea hobetzeko egin behar izan diren lan osagarriak izan dira eta jasandako eguraldi txarraren aurrean saneamendu sarea berdiseinatu egin behar izan dela aurrikusita zeuden sekzioak hala adarrak handituz. Guzti honek BERROGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI (59.156 €) EUROko igoerara garamatza.

Osoko Bilkurak, Obra Zuzendaritzak aurkeztutako epearen luzapen eskaera hala nola jakinarazitako prezioaren igoera aztertu ondoren eta Hirigintza Obra eta Zerbitzueta-ko Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Herri Administrazioen Ministeritzako Toki Koordinakundearen Zuzendaritza Orokorrari "Lazkaon kanpoko igerilekuak" lanen egikaritzearen epearen luzapena eskatzea, lanak 2010eko otsailaren 27an bukatzera pasatuz.

2.- Herri Administrazioen Ministeritzako Toki Koordinakundearen Zuzendaritza Orokorrari "Lazkaon kanpoko igerilekuak" lanen prezioaren handitzea baimendu dezan eskatzea, BERROGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI (59.156 €) EUROtan.

IV.- HAURTZAINDEGIA ERAIKITZEKO LANEN OBRA LIKIDAZIOA.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean eraikitzen ari den Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen obra likidazioa luzatu dute. Obra-likidazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA HAMALAU EURO eta BERROGEITA BOST ZENTIMOTakoa (61.714,45 €) da. Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-likidazio den obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Haurtzaindegia eraikuntza lanen likidazioa den obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

V.- HAURRESKOLAREN ERABILERA SAN BENITO IKASTOLARI EMATEA.-

2009ko irailaren 24an egindako batzarraldian osoko bilkura honek Lazkaoko San Prudentzio ikastetxe eraikinaren ondoan eraiki berri den haur eskola eraikinaren erabilera San Benito Ikastolari emateko espedientea hastea erabaki zen.



Espedientea jendaurrean egon da hamabost eguneko epean iragarkia 2009ko urriaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu delarik.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Guzti hau honela eta gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, PP), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PS-EE, Alternatiba) San Prudentzio Ikastetxea eraikinaren ondoan kokatzen den haur eskolaren erabilera San Benito Ikastolari ematea erabakitzen du. Erabilera hau 50 urteko eperako ematen zaio.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du hurrengo osoko bilkura abenduaren 17an izango dela.

Baita ere joan den astean Marinaledara egin duten bidaiaren ematen du, bidaia aprobetxatuz Jun herrira ere joan zirelarik.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



